

Basque Writing 6

Poesia ikuskitzuzun denean



"Emakumea bere bakardadean...eta beste gauza batzuk". Kafe Antzokia

gure hizkuntzaren loraldian, jakin du leku egiten. Eta poesiak bere autonomia aldarrikatzean ere, 80ko hamarkadatik 25 urte baino gehiagoz, bide eta gune berrietara iristen asmatu du. Orduetik dozenaka poesia emanaldi, irakurraldi musikatu eta ekimen antolatatu dituzte euskal poetek. Literatur lanaren beraren balioari lotuta, poema-bilduma arrakastatsu gehienetan atzean jendaurreko irakurketak egon dira. Paperetik ahozkotasanera eta jendaurreko, performance hori zelan garatzen den azterketa mamitsuak egindakoak dira **Ixiar Rozas** eta **Oier Guillan**. Eta euskal literaturako fenomeno interesgarrietako baten berri ematen digute.

Jendaurreko literatura, performancea

Eleberrien nagusitasuna ekarri dute euskal literaturara azken hamarkadek. Munduko literaturekiko hurbilketaren seinale omen, hizkuntza handietan nagusi diren generoei begira. Poesiak, baina, liburu, salmenta eta irakurlearen eremutik urrats bat harago joaten asmatu du. Arnas luzeko lanaren aldamenean, poesiak berezkotasunaren eremuan daukan abantailari heldu dio. Bat-batekotasuna du alde; ez bedi nahasi inprobisazioarekin eta bertsoarekin. Badu horrekin antzekotasunik, jendaurreko ahozko ekimen biluzia denez gero, baina bat-batekotasuna ulermenarekin lotuta dago.

Ahozko kultura izan da gurean jaun eta jabe luzaroan. Literatura letratik dator, ordea, eta bada ahozko literatura kontraesantzat dituenik. XXI. mendean ahozkotasanak indar berria hartu du ikusentzunezkoen eskutik. Eta poesia ezin hobeto egokitzen zaio horri. Poesia biluzik, poesia bere hutsean, eta poesia arte esparru gehiagorekin bat eginda. Kantua, bertsoa, teatroa, dantza.... poesiarekin erraz eta txukun uztartzen dira.


Atzera begira jartzean, aspaldikoak ditugu gurean generoen nahasketa, eta are aspaldikoago jendaurreko ekimenak. Hitza, sortzailea eta entzulea aurrez aurre. Gure literaturaren berpizkundean,



Urtzi Urrutikoetxea
Euskal PEN Klubaren lehendakaria



Poetro', poesia oholtzean



Oier Guillan, poeta

Argazkia: Joseba Barrenetxea

'E d e r t a s u n a k i t x a r o p e n a s o r t z e n

du, horregatik egiten zaio kontra'. Era horretako esaldiak irakurri dizkiot Eusebio Calongeri *Orientaciones en el desierto* (Artezblai) liburuan. Edertasunaren bilaketa dago ene aburuz, zentzu zabal eta politiko batean, artearen oinarrian. Bide horretan anitzak izan daitezke moduak, sortzaile bakoitzak topatu behar du gehien egokitzen zaion adierazpidea. Poesiak eszenan bizi dituen indarguneak aztertu ditut nik lerro hauetan.

Poesiak sakonki errotu ditu sustraiak oholtzan: teatroaz mintzo garenean 'poetika' hitzak berebiziko garrantzia hartzen du, 'performance' eta 'poesia' hitza elkarrekin jartzeak lan egiteko modu batzuetara igortzen gaitu, neurri batean zehazgabeak eta etiketatzen zailak izanik ere publiko gisa gero eta barnerratuagoak dauzkagunak. Lotura estua ikusten dut poesiek eszenan hartzen dituen bide

ezberdinak eta performatibitatearen ezaugarrien artean.

Teatrogileak izateaz gain poetak izan dira teatroaren historia garaikideko egile asko eta asko (Heiner Müller, Bertolt Brecht, Samuel Beckett, Harold Pinter... gertuago Gabriel Aresti, Jon Gerediaga, Alfonso Sastre...), ezin da kasualitatea izan. Poesia paperari loturik geratu den literatur generoa da, baina kantagintzan du abiapuntua, ahozkotasunean eta zuzeneko komunikazioan. Are gehiago, nire ustez poesiaren formak, egiturak, ezaugarriak hartu ditu azken hirurogei urteetako teatroko idazkerak: parentesi artean aipatutako batzuei gehituko nizkieke Rodrigo García, Angelica Liddell, Thomas Bernhard...

Poesiak dituen berezko ezaugarriek lan ildo interesgarriak zabaltzen ditu lan eszenikoan: egitura poetikoetatik abiatuta idatzitako testuetan aktoreak ez du hainbesteko loturatik narrazioaren hari logikoarekin, askeagoa da testuaren interpretazio propio bat egiteko akotazioeikiko lotura minimo batekin; era berean, errepikapenak, erritmoak, esaldien laburrak, irudien sorkuntzak, fisikotik abiatuta lan egiteko orduan beste aukera batzuk ematen ditu, naturalismotik eta logikatik ihes egiteko joera testutik bertatik ia modu berezko batean ekarriz. Poesian oinarritutako testuak beste era batean eraiki daitezke, collagearen bidetik, ustez literatura baliorik ez duten testuak ere gorputzaren laguntzaz 'poetiko' bilakatu. Bide batez, poesia 'niaren literatura' den heinean bat egiten dezake autofikziotik abiatutako lanekin, ekintza-teatroarekin...

Horregatik agian, etengabea da poesiek paperetik oholtzara egiten duen joan-etorria, forma ezberdinak hartuz. Hauek lirateke bide posible batzuk:

-*Abotsaren dramaturgia*: ahots-lanetik abiatutako emanaldi soilak, zeinean errezitatzaila bat dagoen, eszenaren biluztasunean, papera eta atrilarekin asko jota, publikoaren aurrean. Ahotsaren arteari erreparatuta lan egiten denean, beti ere.

-*Poesia errezitaldiak*: izaera hibridoagatik agian behar bezalako arreta jaso ez duen formatua, arte eszenikoetako balizko azpigeneroa. Kultur agendei erreparatuz gero zenbatezina dira poesia errezitaldi eskaintzak, baina zer eskaintzen dio poesia errezitaldiaren formatuak literaturari? Zer poesiari? Zer eszenari? Gutxienean, esperimentatzeko eta arte ezberdinekin uztarketa bilatzeko euskarria dela ikusi ahal izan da luzez, XX. mendeko lehen abangoardien garaietatik. Horrelakoetan nolnahi ere, ohikoagoa da poesia lagundua topatzea (musikaz, irudiz...) beste arteekin kode bakarrean uztartua baino.

-*Poesia ikuskizunak*: zirkua edo batzuetan kabaret isilen izpirituz, poesia idatzia abiapuntu izanik ere oholtzan arte ezberdinen arteko elkarriketa ematen denean. Alegia, ikuskizun bakoitzerako kode propio bat bilatzen emandako elkarriketa artistikoaren bitartez. Oholtza gainean ikustea poesia, musika, pintura, gorputz mugimendua, nahi den oro, ez elkarren alboan baizik eta ELKARTUAK. 'Elkarriketa' (negoziazioa) diodanean, beste arteen ezaugarrietatik zer edo zer berria barneratu eta norberaren ezaugarrietatik zerbait uko egin esan nahi dut, era berean norberaren adierazpen moduari fidel izanik. Soilik arte diziplina ezberdinetako artistek komunean egindako sortze prozesu batetik, zeinean elkarriketa artistikoa ematen den, sor-



tuko da poesia errezitaldi (lagundua) gaudituko duen ikuskaria.

-Gorputz literatura, performatibitatearen bidetik: lan bat 'poetiko' dela esan: irudi bat, filma bat, hitzik gabeko ekintza bat. Poetikotasunaren zentzuaren oinarrian bada hitza beraren erabilera gauditzen duen zerbait: hitzik gabe azaltzen den emozio bat sortzeko gaitasuna, hartzaileak bere poetika propioarekin osatzen duen irudia. Zentzu horretan ugariak dira, narrazioaren egituretatik ihesi gehienetan, irudi poetikoz osatutako lanak. Dantza garaikidearen kasuan nabarmen, performance askotan, eta gero eta gehiago istorioak kontatzen dituzten teatro-lanetan ere.

'Poesia taularatzea, ahal den neurrian, ez dadin izan soilik interpretatzen den zerbait, 'gertatzen' den zerbait baizik'

Poesia idatzia oholtzaratzeak aldagai interesgarriak ematen ahal dizkio eszenari. Baina poesiak era berean paperaren itzala gaudititu behar du, oholtzan 'egia' topatzeko, aktorearen bilaketa propioarekin bat egiteko, aktorea 'pertsonea' izan ez arren interpretazio artifiziosoa gaudituzko. Poesia

taularatzea, ahal den neurrian, ez dadin izan soilik interpretatzen den zerbait, 'gertatzen' den zerbait baizik. Nolanahi ere, ene aburuz etiketa, kontzeptu eta gogoeta ustez mamitsu orotatik harago oinarrian beti egon behar da komunikatzeko gaitasuna, hunkitzeko bidea, 'egiazko' zerbait gertatzeko modua.

Hunkituz ukitu

Bihotzari hitz egiten dion eszena bat topatu, zentzuei eta emozioari hitz egiten diona. Hunkituz ukitzeko gaitasuna eduki. Poesia ulertzeko moduak zerikusia handia du halaber arte plastikoekin, musikarekin, argiarekin. Hartzailea modu aktibo batean egotera behartzen duelako, jasotakoa bere irudimenarekin osatzera gonbidatzen duelako, komunikazioaren zirkulua osa dadin. Zerikusi gutxi du horrek teatroan sarriegi nagusitzen den joera esplikatioekin, naturalistekin, telebisioekin.

Happening, performance eta bestelako joera artistikoekin arte ezberdinen arteko elkar harremana berreskuratu zen oholtzan, funtsean artearen oinarria bueltatzea izan behar litzatekeena. Ahozkotasunean, kantuan, erritualean, dantza askean, suak sortutako itzaltan... egongo litzateke eszena deitzen dugun horren jatorria, oinarrizko lilura, komunikazioaren sakoneko oroimena. Baina ez dut dagoeneko nirea ez den bizimodu bat aldarrika-

tuko; garrantzitsuena arte ezberdinen arteko harremanean joera estetiko, modazko edo hutsal orotatik harago oinarri-oinarrizko komunikazioa bertopatzeko da, oinarria jotzen duen edertasunaren bilaketa bat, zeinean fikzio artifizialak erazten ditugun gu geu garen fikzioa (egunero-egunero sortzen dugun maskara) bere adierazkortasun guztiarekin topatzeko. Konpartitzeko. Garai, une, taldeko edo bakarkako bilakaera bakoitzak eskatzen duen estetikarekin, berdin dio horrek: garrantzitsuena estetika ororen oinarrian edertasunaren bilaketa egotea da. Hunkitzen ukitzea, beste behin ere.

Poesiak edertasuna biltzen du, eta edertasunak itxaropena sortzen duen heinean (edertasunik gordin eta ilunena izanik ere) hartzailea pizten du, dena egina ematen ez zaion heinean jarrera aktibo bat hartzera behartuz sormen lanaren aurrean. Horregatik da hain zuzen ere arriskutsua, horregatik egiten zaio sarri kontra, eta horregatik da poesia bera, eta poetikoa den oro, interesgarria oholtzan.





Voic(e)SCAPES, arrakala beraren alde bi



Ixiar Rozas, poeta

Argazkia: Zaldi Ero

1

Nor mintzo da ahotsa mintzo denean? Lerro hauek ekarri nahiko nuke galdera hori, hona, orain.

Galdera horren harira, Gilles Deleuzek (Spinozaren uberan) planteatutako *Zer egin abal du gorputz batek?* gogoeta ezagunari helduko diot beste galdera bat ekartzeko. Eta honelaxe birformatuko dut: Zer egin dezake ahots, gorputz, hitz eta lengoaiak osaturiko ehunak egungo dantza eszenan? Galderak esperientziaren eremuan murgiltzera narama, baita ahotsari hitz egiten uzten dion dantzatik sorturiko esanahi berrietan ere. Eredu esperientzial honen baitan, ahotsa, lengoia eta ukipenaren esperientziak modu espeziako batean agertzen dira.

2

(...) Nire azterketan, proposatzen dut hurbilketa genealokikoa (ez historikoa) heltzeko ahotsaren ikusmoldeak hitz egiteari ekiten dioten performanceei. Horren asmoz, marra bat ezarri dut esperientziaren eremuaren eta Vera Mantero, Monica Valenciano, Idoia Zabaleta, Filipa Francisco, Irena Tomazin, Leja Jurisic, Mal Pelo, Jonathan Burrows edo Matteo Fargion bezalako artistek ekarritako kontzeptuen artean. Koreografook, egungo pentsamendu kritikorako (eta ez bakarrik hartarako) ezinbesteko irizten dizkiodan gaiez aritzen dira solasean: esperientzia kontzeptuaz, bizitza kontzeptuaz eta animaltasun kontzeptuaz. Solas edo hizketa honi estradisziplinazkoa esan geniezaiok, zubiak eraikitzen baititu praktika mikro-politiko baten (dantza, kasu) eta arlo makro-politiko bati dagozkien alderdien artean.

3

Dantzak hirurogeiko hamarkadan ekin zion hitz egiteari (batez ere Judson Church taldearen bidez). Alabaina, ahots- eta lengoia-esperimentazioa laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera soilik bilakatu zen zehatz-mehatz lan koreografiko. Horiek horrela, zeintzuk dira ahots hori dantzan azaltzearen ondorio estetikoak eta etikoak? Eta, zergatik aukeratu nuen aztertzea eszena hau ahotsaren ikuspuntutik? Laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera bere ahotsaz esperimentatzen duen dantza hainbat esperientzia-eremu zabaltzen ditu; hala sorkuntza-fase progresibo batean nola hura jasotzean gertatzen diren esperientziak, hain zuzen. Hori dela eta, esperientzia-eremu horiek ikertzea garrantzitsu begitartzen zait. Lan koreografiko horiek ikusgarri bihurtzen dituzte beste komunikazio bide batzuk (permormatibitateari loturiko komuni-

kazio moduak, alegia). Eta, aldi berean, (...) gorputza ulertzeko beste modu batzuk ere islatzen dituzte, subjektibizatzeko-prozesuei loturiko bideak.

4

Zergatik dantzak emantzipatu eta irauli zuen bere ahotsa laurogeita hamarreko hamarkadatik? Zeintzuk dira ikertu ditudan artisten motibazioak eta esperientziak? (...) Verarekin solastatu nintzen hark *We are going to miss everything we don't need* lana Espainian estreinatu ondoren. Xixonen izan zen. Verak azaldu zidan harentzat ahotsa zer edo zer askatzailea dela, alegia, esperimentazioak zentzu politikoa duela. "Bestetik, ez hitz egitea ere izan daiteke oso politikoa" esan zuen. "Baina betidanik arraro samar iruditu zait dantzariak ahozkotatzen gabeko zerbait izatea. Historikoki atzerakoia dirudi. Mintzatzen ez zarenean zer edo zer oso besterik zara, bestelako animalia bat. Beraz, nahiko bitxia zitzaidan heltzea hitzik, lengoaiarik ez zuen ekimen bati. Ez zait sekula normala begitandu. Zentzu honetan erabaki politikotzat har genezake". Nik neuk orain, berriz, Manterok *Ums misteriosa coisa, disse e.e. cummings*-ean salmodiatutako letania ekarri beharko nuke hona: "Samina, ezina, izugarria, izugarria, ezina, samina, izugarria, izugarria...".

5

(...) Koreografia hauetako paisaia zeharkatzean lurralde narratibo batean lekutu dut neure burua, non, oro har, inportanteena ez baita zer kontatu den. Hemen, hitzen karnalitatea funtsezkoa da, baita zentzu(men) eta adierazkortasun bilaketa orotatik urrun dauden lurraldeetan narrazioa sartzeko beharra ere. Performance hauetan (nik neuk *choreopoetic polyphonies* ere izendatuak) ez gara zentzu erabateko baten xerka ari.

(...) Gaurregun, dagoeneko ez dugu ez munduari ez historiari buruzko meta-narratiba erraldorik topatzen. Narratibak narrazio-atomizazio batean disolbatu dira non, gehien-gehienetan, anbiguitatean ezarri orde, galderak edo arazoak planteatu orde, mundu autoerreferentzial batean kokatzen baikaitu. Mundu horrek, eguneroko bizitzan bizi dugun esperientziarik ezan indibidualizatu eta isolatzen gaitu.

(...) *Choreopoetic polyphonies* hauetan ahotsa gorputzetik eta egituratutako lengoaiatik urruntzen da. Ahotsa ukipenarako bitartekoa da. Ahotsa, "Ni"aren eta "Zu"aren arteko espazioan (edo "Ni"aren eta "Inor"en artekoan) dagoen gorputz-misila da, handik urrundu ere egiten dena gorputzera itzultzeko. Ahotsa gorputzaren eta lengoaiaren artean lekutzen da, bien arteko bitartekaria da, baina ez dago ez bataren ez bestearen menpean. Mintzatzen garenean geure ahotsa gurea ez balitz bezala. Edo, aldi berean hainbat gorputzetatik edo tokitatik azalaratzen diren ahotsaz hitz egingo bagenu bezala. "Ni" a ere disolbatzen da gurea den baina, era berean, ez den ahots horretan, zeharo arrakalaturik dauden lengoia eta gorputz horietan; "Ni" a subjektibitate gabe leku batera lerratzen da.

i) Burt, Ramsay (2004) "Genealogy and dance history", in Lepecki, A. *Of the presence of the body*, London & New York, Routledge.

ii) Rolnik, Suely (2007) "La memoria del cuerpo contamina el museo" <http://cicp.net/transversal/0507/rolnik/es/> Suely Rolnik, "The Body's Contagious Memory; Lygia Clark's Return to the Museum," translated by Rodrigo Nunes, *Transversal* (January 2007): <http://cicp.net/transversal/0507/rolnik/en>

iii) Fragment from the conversation with Vera Mantero held in Gijón (9/5/2010) and part of the materials of my PhD "Voic(e)scapes. Experiences and potentials of voice, language and tactility in current dance scene" (Faculty of Visual Arts, University of Basque Country, in process of publication).

iv) If we follow Agamben's reasoning when talking about the poverty of experience, already forecasted by Benjamin when he spoke about soldiers returning dumb from the battlefield. In Agamben, Giorgio (1978) *Infancia e istoria*, Torino, Einaudi. In English can be found under the title *Infancy and history. Essays on the destruction of the experience*, London- New York, Verso, 1993.

